

Euskaltzaindiaren adierazpena 2012ko martxoaren 31ko Baionako manifestaldiaz

Duela 18 urte Euskaltzaindiak Biarritzen frantses gobernuari eskatu zion euskarak Iparraldeko hiru probintzietan ofizialtasuna ukan zezan, hala nola baitzuen jadanik Hegoaldeko euskal herrialdeetan. Euskaltzaindiak garai hartan egin eskaerak ez zuen segidarik ukan, eta geroztik Frantzia ez da jarraz aldatu: eskualdeetako hizkuntzei beti ukatzen dizkie zinezko ofizialtasuna eta legearen geriza.

Egia da 2008an Konstituzioari aldaketa batzuk egin zizkiolarik (2008-724 konstituzio legea), 75. artikuluari emendio bat egin zitzaiola, eskualde hizkuntzak Frantziako ondarearen parte direla errateko. Pentsa zitekeen hizkuntza horiek Konstituzioan aipatzearekin zerbait ezagutza ere hartzen zutela, eta hizkuntza horien hiztunak, ondorioz, testu berri hartan bermatzen ahalko zirela beren hizkuntzaren defendatzeko. Zorigaitzez, egiazki ez da hala gertatu. Alabaina, duela zenbait denbora, Konstituzio Kontseiluak 75-1 artikulua hartaz eman duen erabaki batean (2011-130 erabakia, 2011/05/11koa), guztiz interpretazio hertsia egin du, argiki erranez «ez duela sortzen Konstituzioak segurtatu eskubiderik edo libertaterik». Gisa horretan, delako artikulua osoki ondorio praktikorik gabekoa zela finkatu du Konstituzio Kontseiluak. Euskararen erabilerari dagozkionetan, euskal herritarrek, lehen bezala, legearen gerizarik gabe segitzen dute, eta haien minzairaren ofizialtasunaren eskaera sekula bezain bidezkoa eta zuzena da.

Euskararen ofizialtasunaren eta lege baten eskaeraren entzunarazteko, Euskaltzaindiak bat egiten du Euskal Konfederazioa eta Kontseilua elkar-

teek Baionan, 2012ko martxoaren 31n, antolatzen duten DEIADAR manifestaldiaren helburuekin.

L'Académie de la langue basque soutient la manifestation du 31 mars à Bayonne

Il y a 18 ans à Biarritz, l'Académie de la langue basque - Euskaltzaindia avait demandé au gouvernement français que la langue basque reçût un statut d'officialité dans les trois provinces du nord, à l'image des provinces basques du sud. Cette demande de l'Académie n'a jamais obtenu de réponse, et depuis lors la France a toujours la même attitude : elle refuse d'accorder aux langues dites « régionales » l'officialisation ainsi que leur protection par la loi.

Il est vrai qu'en 2008, lorsque la constitution a été modifiée (loi constitutionnelle n° 2008-724), un ajout fut introduit dans l'article 75 de la Constitution afin de déclarer que « les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France ». On aurait pu penser qu'avec cette mention dans la constitution, les langues régionales recevaient une forme de reconnaissance et que, par conséquent, leurs locuteurs pourraient s'appuyer sur cette nouvelle disposition pour les défendre. Hélas, il n'en est pas advenu ainsi. En effet, il y a bientôt un an, le Conseil constitutionnel, dans une décision relative à l'interprétation du nouvel article 75-1 (décision n° 2011-130, du 11/05/2011), a privilégié une lecture très restrictive, indiquant explicitement que ledit article « n'institue pas un droit ou une liberté que la Constitution garantit ». Ainsi, la modification constitutionnelle se révèle être sans aucune portée pratique. Les citoyens de langue basque restent donc privés de garanties juridiques relativement à l'usage de leur langue, et plus que jamais la revendication de son officialisation s'avère légitime et justifiée.

Afin de faire entendre la demande d'officialisation de la langue basque et d'une loi en faveur des langues régionales, Euskaltzaindia tient à affirmer qu'elle adhère totalement aux objectifs qui seront défendus par les associations Euskal Konfederazioa et Kontseilua lors de la manifestation DEIADAR du 31 mars 2012 à Bayonne.